

2026KO SAN JUAN JAIETAKO TXOSNAK

2026ko San Juan jaietan txosnak jartzeko interesa duen erakunde orok egin beharko du eskaera.

Txosnak jartzeko espazioa Eibarko Txikito izango da, 8 eta 10 zenbakien parean, eta Txaltxa Zelai. Gehienez, 8X4ko metroko 6 etxola eta 8X20ko bat jar daitezke.

Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da pertsona juridiko bakoitzeko edo elkarte/talde bat ordezkatzen duen pertsona fisiko bakoitzeko.

Eskaera egiteko epea **2026ko maiatzaren 18tik 27ra (biak barne)** izango da.

Eskaera egiteko bideak:

Pertsona juridikoak, erakundeak, elkarteak eta haien ordezkari diren pertsonak:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.
- Elikagaien manipulazaila karneta.

Txosnak jartzeko alderdiak adosteko bilera udaletxean egingo da, okupazioaren aurreko egunetan. Bileraren eguna, lekua eta ordua aldeztatik argitaratuko dira udalaren webgunean (www.eibar.eus).

Txosnak jartzeko baimena emateko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jarriko den txosnaren segurtasun-ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruia.

Instalatuko diren txosnen segurtasun eta muntaia ziurtagiria txosnak jartzen diren egunean bertan aurkeztu beharko da, eta erantzukizun zibileko aseguruia okupazioa hasi baino 2 egun lehenago beranduenez.

Txosnak jartzeko baimena dutenek udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen Ordenantzan ezarritako tasa ordainduko dute.

Baimenak adjudikatzeko prozedura:

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda sortuko da. Zerrendan, baztertuen

atalean, baztertzeko arrazoia adieraziko da (baldintzak ez betetzea, dokumentazio osatugabea...).

Behin-behineko zerrenda hau jendaurrean egonen da Udalaren web orrian (www.eibar.eus).

Aldi baterako zerrendaren edukiaren kontra erreklamazioak jar daitezke 5 egun naturalen epean, zerrenda udal webgunean (www.eibar.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak eta dagokien dokumentazio guztia honela aurkeztuko da:

- **Elektronikoki, DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA tramitetik, www.eibar.eus.** Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Bete beharreko lekua baino eskaera gehiago egonez gero, lehenetsuna izango dute helbide fiskala Eibarren duten eskatzaileei dagozkien eskaerek, edo egoitza fiskala Eibarren izan ez arren udalerrian modu jarraituan jarduerak egin dituzten elkarte/talde bateko eskabideek.

Udal-baimena emateko prozedura zozketa bidez egingo da. Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera iragarriko den egun eta orduan.

Onartuen zerrenda osatzen duten interesdunen artean zozketa egingo da.

- Onartuen behin betiko zerrendan agertzen diren eskabideen adina zenbaki sartuko dira eta zenbaki bakar bat aterako da.
- Txosnak atera den zenbakiari dagokion eskaera-zenbaki horretatik hasita esleituko dira hurrenez hurren, goranzko hurrenkeran. Azkenengo eskaera zenbakituari lehenengo zenbakiak segituko dio.
- Txosnak jartzeko hurrenkera korrelatiboa izango da, egindako zozketan egindako esleipenaren emaitzan oinarrituta eta txosnak jartzeko dagoen espazioa kontuan hartuta.

Zozketa egin ondoren, esleitutako txosnen zerrenda argitaratuko da. Zerrendan honako hauek sartuko dira: esleipendunak, esleitutako txosnaren zenbakia, txosnaren metro linealak, **ekainaren 15** baino lehen ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa eta tasa ordaintzeko sistema. Zerrenda hori Udalaren web orrian argitaratuko da (www.eibar.eus).

Eibar, 2026ko maiatzaren 4an.

ZERBITZU SAILEKO TEKNIKARIA